HAL
open science

Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa

Jean Jon, J. Casenave

To cite this version:

Jean Jon, J. Casenave. Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa. Euskera. Euskaltziandia'ren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque, 2010, 55 - 2, pp.797-817. artxibo-00624478

HAL Id: artxibo-00624478

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00624478

Submitted on 18 Sep 2011

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa

CASENAVE, Jon
Euskaltzain urgazlea eta Literatura Ikerketa batzordekidea

Sarrera data:
Onartze data:

Euskera. 2010, 55, 2. XXX-XXX. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskera 2010_2.indb 797 28/06/11 13:26

Euskal Literaturaren Historiari buruzko lehen saio orokorrrak bigarren gerlatik landa idatziak izan dira. Historialari gehienek (adb. K. Michelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*) «Historia literarioa» hartu zuten eredu metodologikotzat eta Europa guzian ordurako nagusitua zen ohizko «patroi» nazionala erakarri zuten euskal eremura.

Estrukturalisten garaian, historia literarioa gogorki kritikatua izan zen. 70-eko eta 80-eko hamarkadetan izan ziren berriztapen teorikoak eta metodologikoak (giza zientziak, testugintza, etb.) euskal literaturari egokitu ziren (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur,* 1977).

Ordutik hona, saileko ikerleek euskal literaturaren historia berritu dute kontutan hartuz azken hogeitahamar urte hauetan agertu diren obra nagusiak (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etb.) baita ere agerian emanez euskarazko sorkuntza literario mailan obra horiek eragin duten aldaketa paragabea.

Badirudi, berrogei bat urtez garatutako eredu historiografikoak «consensus» bat sortu duela unibertsitatean, eskolaren munduan, baita ere, oro har, gizarte mailan, nahiz zenbat idazlek eta kanpoan bizi diren ikerle batzuek modelo finkatu berria eztabaidatzen duten.

Hitz gakoak: euskal literatura; euskal literaturaren historia; literaturaren historiagrafia.

Los primeros ensayos generales sobre la literatura vasca han sido posteriores a la segunda guerra mundial. La mayoría de los historiadores (por ejemplo K. Michelena, *Historia de la literatura vasca*) tomaron como modelo metodológico la «historia literaria» y atrajeron al ámbito vasco el «patrón nacional» que se había impuesto en toda Europa.

En la época de los estructuralistas la historia literaria fue criticada con dureza. Las novedades teóricas y metodológicas que tuvieron lugar en las décadas de los 70 y 80 (ciencias sociales, elaboración de textos, etc.) fueron amoldándose a la literatura vasca (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur,* 1977).

Desde esta época hasta hoy en día, la historia de la literatura vasca ha sido renovada, teniendo en cuenta las obras que se han escrito los últimos treinta años (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) y como no constatando el gran cambio que han supuesto dichas obras en la creación literaria en euskera.

Podríamos decir que el modelo historiográfico desarrollado ha creado un «consensus» en el ámbito escolar, universitario y en las sociedad en general; aunque es verdad también que algunos escritores e investigadores que viven fuera de Euskal Herria ponen en tela de juicio el modelo que se acaba de imponer.

Palabras clave: literatura vasca, historia de la literatura vasca, historiografia de la literatura.

Euskera 2010_2.indb 798 28/06/11 13:26

Les premiers essais généraux sur la littérature basque ont été postérieurs à la seconde guerre mondiale. La plupart des historiens (par exemple K. Michelena, *Historia de la literatura vasca*) ont pris comme modèle méthodologique «l'histoire littéraire» et ont amené au domaine basque le «modèle national» qui s'était imposé dans toute l'Europe.

A l'époque des structuralistes l'histoire littéraire fut durement critiquée. Les nouveautés théoriques et méthodologiques que connurent les décennies 70 et 80 (sciences sociales, élaboration de textes, etc.) furent adaptées à la littérature basque (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur,* 1977).

Depuis cette époque jusqu'à aujourd'hui, l'histoire de la littérature basque a été rénovée, en prenant en compte les oeuvres écrites ces trente dernières années (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) et bien entendu en observant le grand changement que ces oeuvres ont apporté dans la création littéraire en langue basque.

Nous pourrions dire que le modèle historiographique utilisé a créé un «consensus» dans les domaines scolaire, universitaire et dans la société en général, bien qu'il soit aussi vrai que certains écrivains et chercheurs vivant hors du Pays Basque remettent en question le modèle que l'on vient d'imposer.

Mots-clés: littérature basque, histoire de la littérature basque, historiographie de la littérature.

The first general essays on the History of Basque Literature were written after the 2nd World War. Most historians (e.g. K. Michelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*) took «Literary history» as the methodological model, and they transferred the usual national «pattern», which was predominant throughout Europe by that time, to the Basque sphere.

At the time of the structuralists, literary history was severely criticised. The new theoretical and methodological developments (social sciences, text production, etc.) in the 1970s and 1980s were adapted to Basque literature (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur,* 1977).

Since then, researchers in the field have revised the history of Basque literature by taking into consideration the main works that have appeared over the last thirty years (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) and also by drawing attention to the tremendous change these works have brought to bear on the level of Basque literary creation.

The historiographical model developed over forty years appears to have created a «consensus» in the university, in the world of the school, and on the level of society as a whole, even though some writers and researchers living abroad challenge the new fixed model.

Key Words: Basque literature; history of Basque literature; historiography of literature.

Euskera 2010_2.indb 799 28/06/11 13:26

Sartzea

Denok erabiltzen dugu Euskal literaturaren historia Molde konziente batez –edo partez, inkonzienteki– euskal literaturaren historiaz, urteetan zehar eraikia izan den «kondaketa nagusi» bat erabiltzen dugu gure lanean. Erabiltzen dugun ber, indartzen dugu eta lege bihurtzen.

Egungo eredu hori, bigarren gerlatik landa astiro eraikia izan da. Erran daiteke Koldo Mitxelenak finkatu zuela 60-eko hamarkadaren hastapenean. Denbora joan arau, aldaketak eta egokipenak izan dira, bainan oro har, Mitxelenak eman zion egitura bertsua atxikia du. Eta alde hortarik, inguruko kulturetan egiten denarekin bat egin dugu, mende erdi batez. .

Azken hogei urte hauetan, «Euskal Literaturaren Historia» multxo pollita argitaratu da. Sekulan baino materiala gehiago badugu eta, lehengoa baino aise hobea da. Bainan, historien kopurua handiturik ere, denak eredu beretik ari dira. Badirudi denentzat onargarria den eredu bat finkatua izan dela, hein batean «kontzentzuala» dena.

Preseski, 1983-an argitaratu zuen artikulu batean[1], Txuma Lasagabasterrek azpimarratu zituen egokitze prozesu horren gabeziak. Artikulu hori, garrantzi handikoa izan da azken urte hauetako euskal literaturaren historian, idazlan programatikoa zelakoan. Hain zuzen diagnostiko zehatzarekin batean historiografia mailako ikerketa egitarau bat proposatu zuen. Ordutik hona, ikerketa programa hori ez da arras bete, bainan ahulezia handienak konponduak izan dira.

Irakasle bezala, ni guziz ortodoxoa naiz eta azken urte hauetan hedatu den «doxa» hura den bezala eta artoski irakasten dut ene klasean. Egia erran, egiteko molde hori ezin bestekoa iduri zait, euskal literaturaren historia «kondaketa nagusi» bezala osatzekoa da oraindik eta, kondalari professional bezala, irakasleok badugu errespontsabilitate handi bat.

Halarik ere, euskal literaturaren saileko ikerle bezala, Txuma Lasagabasterrek ongi erakutsi zuen badugula beste eginbide bat guziz premiazkoa:

---

[1] LASAGABASTER, Tx., 1983, «La historiografia literaria vasca –Aproximacion critico bibliografica–», *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.

Euskera 2010_2.indb 800 28/06/11 13:26

denok inplizitoki onartzen dugun ikusmoldea aztertzea. Hori izan da ene helburua. Ez dizuet ikuspegi berririk ekartzen. Iraskale bezala erabiltzen ditudan datuak hartu ditut eta horietan ageri den «eredu historiografiko konzentzuala» zehaztu nahi izan dut, sintesia baten moduan.

1. Euskal literaturaren eredu historikoa 80-eko hamarkadaren atarian

Literaturaren historia: oinarriak eta aukerak Europa mailan:

Euskal eredu historiografikoa nola finkatu den bigarren gerlatik landa ikusi baino lehen, Europa mailako egoera aipatuko dut.

Europa mailan, XIX-garren mendetik hona nagusitu den «ereduan», literaturaren historia ez bada beti[2], gehienetan bederen, izan da literatura berezi baten historia[3], beraz, hizkuntza batean idatzia izan dena (gehienetan nazionala) eta eremu konkretu batean (gehienetan, nazio batena, nazio egina ala egiteko bidean zena).

Nazio «literario» bakoitzak bere obren korpusa finkatu du eta «kanon»-a, baita ere bere idazleen «panteon»-a egituratu ditu. Eredu horren gizarteratze prozesu batzuk antolatu ditu, transmizio bide nagusia eskolaren sistema izan delarik.

«Eredu nazional»aren araberako historia mota horren helburuak eta metodoak, XIX-mendean garatu zirenak, Sartre[4], Barthes[5], Jauss[6], bezalako

---

[2] Salbuespen batzuk:

– CURTIUS, Ernst-Robert, 1956 (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Môyen-âge latin*, PUF.

– BACKÈS, Jean-Louis, 1996, *La littérature européenne*, Belin.

[3] LANSON, Gustave, 1894, *Histoire de la littérature française*.

[4] SARTRE, Jean-Paul, 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.

[5] BARTHES, Roland, 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.

[6] JAUSS, Hans-Robert, 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard.

Euskera 2010_2.indb 801 28/06/11 13:26

autoreek eztabaidatu dituzte XX-garren mendeko bigarren partean. Halarik ere, arazoez gain, «eredu nazionala» da gehienik irakatsia izan den –eta oraindik irakasten den– modeloa edo patroia Europako erresumetan.

Lehen paradigma aldaketa, 60-eko hamarkadan:

Gure kasua aipa dezagun orain eta ikus dezagun zertan zen egoera historiografikoa 80-eko hamarkadaren atarian. 60-etik aurrera, guti gora behera, euskal kulturan inguruko kulturetan bezala, literatura iharduera estetiko autonomoa bezala definitua izan da. Ikuspegi hori astiro nagusitu da, XX-garren mendeko 60-eko hamarkadatik hona. Koldo Mitxelenak eta haren ildotik etorri zirenek literaturaren historian ere sarrarazi zuten ikuspegi hori. Geroztik, definizio konzentzuala ematen diogu literaturari: ez ditugu gehiago euskara idatziaren historia eta euskal literaturaren historia nahastikatzen.

Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca* (1960):

Tx. Lasagabasterrek idatzi zuen Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) izan zela euskal eremuan egina izan zen lehen lan zehatza, arau historiografikoak zorrozki bete zituelako. Zoin dira, laburzki bilduak, liburu horren ekartpen handienak?

– Europako erresumetan erabiltzen ziren ezaugarri nazionalak gurean falta edo eztabaidagarri ziren: erresuma finko bat bere mugekin, historia eta hizkuntza nazionalak, etb. Beraz**, «ardatz linguistikoa»** hartu zuen oinarri gisa eta euskal eremu historiko bat osatu zuen hizkuntzaren eta literaturaren ikuspundutik.
– Euskal literaturaren korpusa **euskarazko testuekin** bakarrik antolatu zuen Mitxelenak, bera baino lehen ari izan ziren historia egileen tradizioarekin[7] hautsiz.
– Hizkuntza literarioaren aldetik, euskalki literarioek eragiten duten banaketa baino gorago ezarri zuen obra nagusiek beren artean egiten duten batasun linguistikoa. Ikuspegi hortan, 68-tik gora finkatu zuen

[7] Adibide gisa, LHANDE, Pierre, *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) liburuan egiten den aurkezpena aipa daiteke.

Euskera 2010_2.indb 802 28/06/11 13:26

eredu linguistiko bateratua lantzen zuen, hizkuntza literarioaren eremuan.

– Historia literarioaren metodologia euskal adibideari egokitu zuen eta kriterio literarioa edo estetikoa erabili zuen kanon baten eraikitzeko.

– Beretik segitzeko, erran behar da «kanon bildu» edo «hertsi» bat osatu zuela Mitxelenak, idazle nagusi gutti atxikitzen baitu bere panteonean.

– Bukatzeko, literaturak gizartearekilan dituen harremanak behar bezala hartu zituen kondutan K. Mitxelenak, batez ere sorkuntzaren prozesuan.

Euskal literaturaren historia eta giza zientzien ekarpena:

Ondoko, hamarkadan, «historia» batzuk argitaratu ziren. Horietan, bi liburu aipatu behar dira erreberritze metodologiko interesgarria ekarri baitzuten, orduko giza zientzietan oinarrituz.

– *Euskal literaturaren historia* (1971), Ibon Sarasola

– *Euskal Idazleak gaur* (1977), Joan-Mari Torrealdai

Biek kanpoan erabiltzen ziren metodo soziologikoak erakarri zituztela euskal eremura. I. Sarasolak, L. Goldmann-en azterbideak bereganatu zituen. Gizartean dauden egiturak eta literatura mailako produkzio sistemak nahi izan zituen kurutzatu testuen egiturekin. Horrela eginez, gizarte aldaketa nagusi batzuen gainean bermatu zen, euskal literaturaren periodizazioa era bat arramoldatzeko. Bi data nagusi edo hausdura aurreratu zituen: 1901-ean eta 1964-ean finkatu zituen.

Zenbait urte geroago argitaratu zuen liburuan[8], Ibon Sarasolak literatura aztertu zuen soziologiaren metodologia kantitatiboak erabiliz. Robert Escarpit-ek paratu zituen urrasbideak[9] segitu zituen euskal liburugintza eta euskal idazlegoaren estrukturen ikertzeko.

---

[8] SARASOLA, Ibon, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.

[9] ESCARPIT, Robert, 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.

Euskera 2010_2.indb 803 28/06/11 13:26

Joan-Mari Torrealdai ere, Robert Escarpit-ek finkatu oinarri soziologikoetatik abiatu zen ondoko urteetan eta eragin handiko inkesta argitaratu zuen 1977-an: *Euskal idazleak gaur (Historia social de la lengua y literatura vascas)*[10]. Liburugintzaren bilakaeraren historia eta haren gizarteratze prozesuak ikertu zituen estadistiken laguntzarekin. Bestalde, bilakaera historiko eta soziologiko ber bera bilatu zuen euskal idazlegoaren baitan.

Beraz, 60-eko hamarkadaren hastapenean Mitxelenarekin abiatu zen prozesuak ondorio argi batzuk bideratu zituen. 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen eredu historiografikoaren arabera, euskal literaturaren historian ondoko oinarriak kondutan hartuak izan dira:

– Euskaraz idatzitako testuak dira euskal literaturan sartzen direnak.
– Europa mailako «Literaturaren definizio modernista» aplikatzen zaio euskal literaturari.
– Europa mailan, literaturaren historia egiterakoan erabiltzen diren bi metodologia nagusiak erakarriak izan dira euskal eremura: historikoa eta soziologikoa.

2. Eguneratze bat 80-eko hamarkadatik hona:

Zer gertatu da 80-etik hona? Neurri handiko eguneratze teoriko eta metodologiko bat.

«Bihurgune teorikoa» euskal ikasketetan:

Literaturaren kritika mailan, atzerrian erabiliak ziren metodologiak euskal literaturaren azterketari egokituak izan dira 80-eko hamarkadatik 2000-etara: semiotika, harreraren estetika eta irakurleari buruzko teoriak, literaturaren soziologia, etb.

Hor dira, bihurgune teoriko horren lekuko urte horietan aurkeztuak izan diren tesia nagusiak. Urte horietan egin diren ikerlan gehienak azterketa

[10] TORREALDAI, Joan-Mari, 1977 *Euskal idazleak gaur, (Historia social de la lengua y literatura vascas*), Jakin.

Euskera 2010_2.indb 804 28/06/11 13:26

monografikoak izan dira. Aintzineko bi hamarkadetan Mitxelena, Sarasola edo Torrealdai bezalako historia egileek finkatu zuten «kanon bilduan» zeuden idazle konsakratuak bilakatu dira aztergai: Mogel, D. Agirre, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Aresti, baita ere bakar batzuk garaikideen artean, hala nola B. Atxaga. Literaturaren kritikan bezala, «literaturaren historia» sailean ere, kanpoko erresumetan lantzen ziren problematika berriak erakarriak izan dira euskal eremura baita ere, denbora berean, kanpoko tresna eta oinarri metodologikoak.

Tx. Lasagabasterren azterketa kritikoa:

«Euskal literaturaren historia» sailean, Tx. Lasagabasterrek du lehen aldikotz aztertu literaturari buruzko euskal produkzio historikoa historiografiaren ikuspegitik. Ikuspegi historikoaz gain, euskal literaturaren historiaren hobetzeko eta eguneratzeko egin behar zen ikerketa programa finkatu zuen:

– lehen proposamena metodologikoa zen: harek zion XX-garren mendeko azken partean eremu kultural garatuetan pentsatuak eta erabiliak izan ziren azterketa bide berriak erakarri behar zirela euskal eremura. Beraz, giza zientzietatik (soziologia, psikanalisia, mentalitateen historia, etb.) eta testugintzatik (hizkuntzalaritza, semiotika, pragmatika, etb.) etorri ekarpenak erabili behar ziren euskal literaturaren historian. Hots, eguneratze metodologikoa eta zientifikoa eskatzen zuen euskal kritikarentzat. Hori da preseski, hamarkada hartan gertatu dena.

– Bigarren proposamena: hizkuntzaren historia eta literaturaren historiaren arteko lotura egin behar zela. Iduritzen zitzaion, euskal kontestu soziolinguistikoa kontutan hartu behar zela euskal literaturaren ikertzeko, batez ere hemengo egoera diglosikoak sorkuntza mailan zuen eragina. Pundu horrek eskatzen zuen gogoeta ez da geroztik asko aurreratu, Jon Kortazar-en liburu bat[11] kentzen bada.

– Hirugarren proposamena: hiruetarik zailena zen betetzeko. Euskal eremu kulturalean aspaldidanik bizi dugun egoera konplexua aipatzen zuen. Tradizio kultural hirukoitza aurkitzen da azken mende hauetan

[11] JON, Kortazar, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

Euskera 2010_2.indb 805 28/06/11 13:26

Euskal Herrian, hiruzpalau hizkuntzen bizigunea delako. Eta, Tx. Lasagabasterrek zion, gisa batez edo bestez ainiztasun hori behar litzatekeela kontutan hartu. Bainan, berak aitortzen zuen xede guziz helgaitza zela eta, mementoko, ezin bestean, euskarazko sorkuntza baizik aztertzen dela euskal literatura gisa.

Bukatzeko eta laburbiltzeko, erran daiteke Tx. Lasagabasterrek «euskal literaturaren historia berritu» bat eskatzen zuela.

«Historiak» ugaritu:

XX-garren mendeko azken laurdenean, Euskal literaturaren historiak ugaritu dira. Hamabost bat orotara. Historia orokorrak izan dira:

– *Historia de la literatura euskerika*, Luis-Mari Mujika, 1979.
– *Literatura vasca*, Jon Juaristi, 1987.
– *Précis de littérature basque*, Jean-Baptiste Orpustan, 1996.
– *Euskal kultura gaur,* (Liburuaren mundua), Joan-Mari Torrealdai, 1997.
– *Historia de la literatura vasca*, Askoren artean, Patri Urkizu zuzendaritzapean, 2000.
– *Iraupena eta lekukotasuna*, (Euskal literatura idatzia 1900 arte), Patxi Salaberri Muñoa, 2002.
– *Historia de la literatura vasca,* Iñaki Aldekoa, 2004.
– *Euskal literaturaren historia,* Iñaki Aldekoa, 2008.

Edo, bestela, literaturaren eremu batena baita ere garai mugatu batena:

– *Euskal teatroaren historia,* Patri Urkizu, 1978.
– *Ahozko literatura,* Juan-Mari Lekuona, 1982.
– *Gerraondoko poesiaren historia*, Josu Landa, 1983.
– *Euskal eleberriaren kondaira*, Gotzon Garate, 1983-1985.
– *Literatura vasca. Siglo XX*, Jon Kortazar, 1990.
– *Euskal haur eta gazte literatura*, Xabier Etxaniz, 1997.
– *Euskal eleberriaren historia*, Mari-Jo Olaziregi, 2002.
– *XX. Mendeko euskal literatura*, Jon Kortazar, 2003.

Euskera 2010_2.indb 806 28/06/11 13:26

Nahiz ez diren bat heldu edukien aldetik baita ere iritzi kritikoei begira, halere ageri da liburu horiek erabiltzean autore guziek barneratu dituztela Mitxelenaz geroz onesten diren oinarri historiografikoak. Beraz, oinarri horiek kondutan hartzen badira, erran daiteke eredu historiografiko bakar bat badela egungo egunean. 80-eko hamarkadatik hona «Euskal literaturaren historia» berritu bat garatu dela

3. **Euskal literaturaren historia berritua**

Saia gaitezen euskal literaturaren historia berritu horren definitzen hurbilagotik:

Alde metodologikoa aipa dezagun lehenik:

Oro har, 90-etik hona agertu diren historiek Tx. Lasagabasterrek eskatzen zituen oinarrizko aukerak bete dituzte. Eguneratze teorikoa eta metodologikoaz gain, beste ekarpen amankomun bat badute: alde didaktikoa. Oraiko liburu gehienak, transmiziorako pentsatuak dira, irakasle batzuek ikasleentzat eginak, polemikatik kanpo eginak.

Erran daiteke Euskal literaturaren historiak bere legitimitatea baduela, irakasten den ber. Iduri ez duelarik, bihurgune nagusi bat izan da hori: 1980-hamarkada baino lehen publikatu duten historia egileek ez zuten –ezin bestean– publiko finkorik buruan. «Hartzaile ezagun» horren falta nabari da liburu gehienetan. Alderantziz, gaurko egunean –erran nahi baita euskara eskolaren sisteman sartuz geroz– kritakariek eta historia egileek badakite norentzat ari diren lanean, euskal literaturaren historia lantzen dutelarik: unibertsitateko ikasleentzat, irakasle, kazetari eta beste bilakatuko direnentzat eta haien bitartez, lizeoko ikasleentzat. Eta bistan da, publiko zabalago batentzat ere.

Beraz, nahi ala ez, historialariak harreman instituzionalizatu batean ari dira gaurko egunean. Harreman konplexua da dudarik gabe. Lehen baino eragin handiagoa du gaurko «Historia» batek bigarren mailako irakasleen bitartez. Denbora berean, «instituzioek» (Eskolak eta Unibertsitateak) hein batean bideratzen dute historia egile baten lana jartzen dizkioten eskaeren

Euskera 2010_2.indb 807 28/06/11 13:26

bidez. Dudarik gabe, instituzio horiek nahi lukete «eredu finkatu, iraunkor eta normalizatu» bat. Beste gisa batez adierazteko, tradizio baten eskaera –gurea guziz motza izanik ere– egiten diote egungo euskal literaturaren historiari.

Legitimitate kulturala jokoan dago kanpoari begira bainan, barneko eremuan ere eta euskaldun gazteriari buruz, era berezi batez. Alde hortarik, ez da ahantzi behar, Literaturaren historia dela Euskal Historiaren sail bakarra garai eta eskualde ezberdinetako Euskaldun guziak bateratzen dituena, euskal literatura euskaraz idatzia delako –egungo definizioaren arabera–.

«Patroi» berriaren oinarri konzentzualak:

Orai ikus dezagun zein daitezkeen gaurko patroiaren oinarri kontzentzualak:

– Literaturaren «definizio gaurkotua» zabaldu da gure artean: «sail eta iharduera autonomo» gisa definitua da, XIX-garren mende ondarrean eta XX-garren mende hastapenean zabaldu den Modernitatearen arabera.
– Autoreak, «kanon bildu» baten alde agertzen dira, salbu idazle garaikideentzat (azken hogei urtekoak).
– «Kanon bildu»-aren problematikan, K. Mitxelenaz geroz indartu den tradizio kritikoa hartzen dute beren gain, Domingo Agirreren obratik Jon Mirande-renaraino, autore nagusi onartuen gainean bermatuz.
– Garaikideentzat, itsura arizan orde, guziz idekirik uzten da autore eta obren zerrenda.
– Toki nasaia, nasaiena orrialde kopuruaren aldetik, eskaintzen zaio sorkuntza garaikideari.
– Eleberria da egungo genero nagusia.
– Euskal literaturaren historia «objeto» konplexu gisa hartua da, sistema bezala. Giza zientzietatik (soziologiatik adibidez) heldu diren konzeptuen bitartez aztertzen dituzte eremu literarioan diren harreman eta lokarri sozialak.

Euskera 2010_2.indb 808 28/06/11 13:26

Aldaketa nagusi bat ereduan: Paradigma aldaketa:

Patroi horren oinarrien artean, ondoko bi hauek dira azken mende laurdenenan agertu eta indartu direnak: garaikidetasunari emana izan zaion lehentasuna eta narratibaren nagusigoa. Ez ditut pundu horiek gehiago aipatuko, begien bistakoak baitira denentzat. Bainan, azpimarratu behar da, aldaketa nagusi bat, paradigma aldaketa bat bultzatu dutela eredu historiografikoaren baitan.

Ondorioz, 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen modelo historiografikoa (Mitxelena, Sarasola, Torrealdai, etb) gainditua izan da. Horrengatik, erran daiteke eredua «berritua» izan dela.

Garaikidetasunari lehentasuna:

Garaikidetasunaren lehentasun horren neurtzeko, har daiteke adibidez I. Aldekoaren liburua. Euskal literaturaren historia orokorra aurkezten du, hots bost mende. Azken berrogeitahamar urteek, bigarren gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta garaikideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, XX-garren mendeko azken hogeitahamar urteek 9 sartze ezberdin badituzte, liburu osoak 21 bat sartze dituelarik. Abantxu sartzeen erdia azken mende laurdenarentzat da, beraz.

Narratiba nagusi.

Beste seinale bat: narratibari ematen zaion ardura berezia. Narratiba, «genero nagusi» bilakatua da bigarren gerlatik hona euskal literaturan, inguruko kulturetan bezala, gurea berantarekin halakatu bada ere. Euskal literaturaren munduan aurkitzen diren partaide guziek (idazleek, irakurleek, argitaratzaileek, kazetetako eta unibertsitateko kritikariek) hogoi bat urtez obratua dute mugimendu «normalizatzaile» hori. Denbora berean, ordu arte narratibaren hein bertsuan aurkitzen ziren generoak –poesia eta saiakera– zokoratuak izan dira. Aldaketa hori onarturik, Euskal literaturaren historiek ere narratibari ematen diote lehentasuna.

Euskera 2010_2.indb 809 28/06/11 13:26

4. Zein ote dira eredu berrituaren ahuleziak historiografiaren ikuspegitik?

Beraz, luzatu gabe azken pundura pasatuko naiz. Orai, eredu berrituak ekar lezazkeen arazo historiografikoak aipatuko ditut. Molde eskematikoan emanak dira, eztabaidaren abiapuntu gisa.

Periodizazio eredu iraunkor bat ba ote dugu?

Orain arteko euskal literaturaren historiak konparatzen badira aladaketa nabaria aurkitzen da periodizazio mailan. Ondoko adibideek adierazten duten bezala, lehengo garaiez ez da batasunik periodazazio mailan:

K. Mitxelena (1960):

1. Ahozko literatura.
2. Hastapenak. XVI. Mendea.
3. XVII. Mendea.
4. 1700 –1850.
5. 1850 – 1960.

I. Sarasola (1970)

1. 1545 – 1901.
2. 1901 – 1964.
3. 1964 – 1971.

J-B. Orpustan (1996):

1. 1545 aintzin.
2. 1545 – 1670.
3. 1670 – 1815.
4. 1816 – 1907.
5. 1908 – 1950.

I. Aldekoa (2004):

1. XVI. Aitzin: kap. 1.
2. XVI – XVII: kap. 2, 3.
3. 1700 – 1833.: kap 4, 5.
4. 1834 – 1936: kap. 5, 6, 7, 8.
5. 1937 – 1950: kap. 9.
6. 1950 – 1975: kap. 10, 11, 12.
7. 1975 – 2000: kap. 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20.

Historia egileek oinarri historiografiko berdinak erabilirik ere, badirudi eredu iraunkorrik ez dela oraindik finkatu ahal izan garai zaharrei buruz. Zailtasun horren adibide bat ematekotan, aipa daiteke Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna XIX.mendearen tratamenduan. Hegoal-

Euskera 2010_2.indb 810 28/06/11 13:26

deko historialarientzat, Karlistadek XIX. Mendearen banaketa diakronikoa bideratzen dute edo, bederen, eragin handiko mozturak bezala emanak dira.

XIX. Mendea, Iparraldetik (J.B. Orpustan, 1996 adibidez) ikusten bada, garbi dago Frantziako Historian gertatu hausdura handiek (1789-ko Iraultza; Napoleon Lehenaren Inperioa –1802/1815–; 1848-ko Iraultza; Napoleon Hirugarrenaren garaia edo «Bigarren Inperioa» –1852/1870–; 1870-ko gerlaren galtzea eta Hirugarren Errepublika, etb.), banaketa eragiten dutela.

Eta aurki daiteke horrelako ezberdintasun asko gaineko bi ikuspegien artean, bai eta ere Iparraldeko edo Hegoaldeko ikuspegien baitan, hala nola bigarrenean Ibon Sarasolak proposatzen duen banaketa diakronikoa, 1901 eta 1964 bi urte mugen inguruan.

Zertarik ateratu behar dira urte muga horiek? Euskal Herriaren Historiaren alorretik? Inguruko Erresumen Historiaren alorretatik? Inguruko Erresumetako et Euskal Literaturaren baitako alorretatik?

Horrelako desoreka diakronikoa ezin bestezkoa dea?

Bestalde, periodizazio gai horri jarraituz, erran daiteke garai literarioen arteko desoreka diakronikoa handitu dela lehengo historiak eta oraikoen artean. Badirudi, azken 30 urtetan, literaturaren eremuan gertatu aldaketa nagusiak, haiek ekarritako ondorioak eta haietatik sortutako bilakaera hartu dituztela kondutan historia egileek, besterik gabe. Hots, bilakaera horren lekuko gisa, begien bistan zutena aztertu dutela objektiboki. Bainan, denbora berean, historia egileek aukera historiografiko bat egin dute nagusiki. Gaur egun idazten ari den literatura kondutan hartzea erabaki dute. Gainera, literaturaren definizio «modernista» aukeratu dutelako, desoreka diakronikoaren indartzera behartuak izan dira. Bi aukera horiengatik, azken 30 urteen tokia handitu da ezin bestez.

Beste tradizio historiografikoetan, ez da garaikideen azken punta literaturaren historia orokorrean sarrarazten Gehienetan, bestalde lantzen da, molde berezi batez[12], nahiz joera hori aldatzen ari den astiro. Bortxaz, urte

[12] Ikus: VIART, Dominique, VERCIER, Bruno, 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

Euskera 2010_2.indb 811 28/06/11 13:26

batzuen gibelatzapena hartuz, idazle garaikideen multzo nasaiaren baitan bahetze edo irazte lana berenaz egiten da eta, «konsakratu berriak» tantaka baizik ez dira sartzen korpusetan eta kanonean.

Nola antola korpusaren baitako desoreka?

Horrela eginez, lehengo garaiek tratamendu joriagoa badute. Hortaz ohartzeko, aski da *Précis d'Histoire littéraire basque* (1996) liburua hartzea. Azterketa XX-garren mende erdian (1950) gelditzen da. Garbi dago gaur egun guretzat «literario» ez diren sailek badutela liburu hortan toki nasaia eta ñabardura askorekin zehaztuak direla: «La poésie de circonstance, la poésie religieuse et la poésie didactique», «Aux marges du littéraire: dévots, apologistes et grammairiens», «Deux prosateurs issus du journalisme», etb. Hots, besteetan agertzen ez diren kategoria batzu.

Aipatzen ditugun historia berrietan (Aldekoa, Kortazar, Olaziregi) aldiz, lehengo garaiak gehiago «bilduak» dira. Bainan, bigarren gerlatik landa (Aresti/Mirande, etb.) eta, are gehiago 1975-etik goiti, garaiak nasaitzen eta laburtzen dira eta badirudi gero eta lasterrago iragaiten direla. Gisa berean, obra eta autoreen sailkapena gero eta zehatzagoa bilakatzen da gure garaitik hurbiltzean, kategoriak ugaritzen dira, ñabardurak ere bai. Kategorien izenburuak guziz zehaztuak dira:

– M.J. Olaziregi: «Euskal eleberri modernoa», «Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1975-2000).
– I. Aldekoa: «Modernotasuna euskal eleberrigintzan: Txillardegi eta Ramon Saizarbitoria»; «Trantsizioko euskal literatura (1975-2000).
– I. Aldekoa / J. Kortazar: askotan, sailkapena kronologiaren arabera egiten da. «Laurogei eta laurogeita hamarreko urteetako poesia»; «80ko hamarkadako literatura: poemagintza».

Zer pentsa kanonaren iraunkortasunaz?

Gorago aipatu diren aukerek ondorioak badituzte ere kanon-aren baitan eta haren iraunkortasunari begira. Komuzki, beste tradizioetan, kanonaren baitako edukia eta oreka bi molde ezberdinez aldatzen da:

Euskera 2010_2.indb 812 28/06/11 13:26

– *Kanpotik:* idazle garaikide zenbait sarrarazten dira bainan, astiro, bahe metodologiko batzuen bitartez eta tradizio historiko ezberdinen erritmoaren arabera[13].

– *Barnetik:* ikerketaren bitartez, tesia edo saiakera baten karietan, autore bat, mugimendu bat edo garai bat berriz miatzen da eta, aurkikuntza berrien arabera, ordu arteko «baloreak» gora edo behera mugitzen dira.

Euskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950-eko aurreko kanon-a abantxu hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu. Salbuespen guti izan da (Oihenart, Jean Etxepare) eta oro har, eztabaida guti (Bernat Etxepare).

– Zein da gurean garai aldaketen eragilea?

Inguruko kultura garatuetan, «Modernitateaz» geroz, hausduraren konzeptoa erabilia da garaien arteko banatzaile eta aldaketen eragile bezala. Frantses literaturan adibidez, Mugimenduak (Dada, Surrealismoa, etb.) eta idazle eskola edo taldeak (Sartre/Camus, «Nouveau Roman», etb.) garai literarioen ezaugarri nagusitzat hartzen dira. Mugimenduak elgarri oposatzen dira (Erromantismoa / Simbolismoa, etb.) eta garai batetik bestera iragaiten da hausdura estetiko batzuk direla medio.

Ibon Sarasolak hausduraren konzeptoa erakarri zuen euskal alorrera eta bere *Euskal literaturaren historia*-n (1971) erabili zuen: «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie, 1901-eko kasuan, Euzko Alderdi Abertzaleari[14], 1964-ekoan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren idea berriei.» Geroztik, Ibon Sarasolak egin zuen bezala, «Hausduraren kontzeptoa» Historiari loturik agertzen da komuzki, hala nola «1975» urte mugarekin. Gisa berean, aurreko garaientzat ere erabiltzen da, hala nola 1957-ean Txillardegik argitaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriarentzat. Obra berritzaile hori askotan emana da euskal eremuan gertatu hausdura estetikoetatik baten ezaugarritzat.

---

[13] Adibide gisa, frantses tradizio historiografikoa aipa daiteke kontserbadoreen artean.

[14] Hitz honi lotua oin ohar batean ondoko xehetasunak agertzen dira: «Euzko Alderdi Abertzalea 1895-ean fundatu zen. Euzkadi» aldizkariaren lehen numeroa, 1901-ean agertu zen.»)

Euskera 2010_2.indb 813 28/06/11 13:26

Nola konpondu generoen tratamendu murritzailea?

Generoen tratamenduan ere desoreka agertu da narratibaren faboretan. Horrela eginez, gorago erran bezala, aldaketa kantitatibo bat sarrarazten da azterketaren oinarrietan. Bainan, denbora berean, aldaketa kalitatibo batzuk ez dira kondutan hartuak. Adibidez, 30 urtez iparraldean garatutako «antzerki berria»-k (D. Landart, Irigoyen anaiak, A. Luku, P. Hirigaray, etb.) ez du oraindik literaturaren historian ardietsi gizartean ukan duen araberako tokia. Gauza bera erran daiteke poesiaz, non ez den aipatzen genero horren aztertzeko egina den liburu bat[15].

Generoen tratamenduak korpusaren baitako oreka alda lezake ez bada narratibaren garrantzia, gisa batez edo bestez, neurri batean kontrolatzen. Poesiaren tokia azterketa kritikoan baita ere «kanon» berrian murriztuz joan da, urteak joan arau. Euskal literaturaren historian garrantzi kantitatiboa eta kalitatiboa orekatu behar litazke molde berezi batez.

Aurkako kondaketak beharrezkoak ote dira?

Badirudi, nahi ala ez, «tradizio moduko kondaketa hastapen»… bat finkatzen ari dela, euskal literaturaren historian, «eskola sistema»-ren laguntzarekin. Eta, itxura guzien arabera, «kondaketa» hori konzentzuala bilakatzen ari da.

Beraz, «kontra ereduak» edo «aurkako kondaketak» deitu konzeptuen gogoetatzeko garaia etorria ote da? Frantses literaturan adibidez ez da «aurkako ereduen» tradiziorik, eredu ortodoxoa guziz sendoa baita eta ongi hedatua instituzio indartsu batzuen bidez. Halarik ere, horietatik bat bada indartzen ari dena Karaïbetako eremuan, Kreolar Letrak irudikatzen duten Edouard Glissant[16], Patrick Chamoiseau[17] eta Raphaël Confiant[18] bezalako idazleei esker.

---

[15] LANDA, Josu, 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK,. KORTAZAR, Jon, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.

[16] GLISSANT, Edouard, 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation*, Gallimard.

[17] CHAMOISEAU, Patrick, 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.

[18] CONFIANT, Raphaël, CHAMOISEAU, Patrick, 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.

Euskera 2010_2.indb 814 28/06/11 13:26

Estatu Batuetan, Indian eta munduko anitz eskualdetan, «Post-Colonial Studies» mugimenduaren eraginez –besteak beste–, «Aurkako kondaketak» idazten ari dira, tokiko literaturen ikuspegitik.

Euskal eremuan mementoan ez da horrelarik garatu, Joseba Gabilondoren proposamena[19] salbuespen bakarretatik delarik. Haren ustez, Europarrek denetara hedatu zuten «eredu nazional» –alegia– unibertsal hura hats hantua da eta desagertzera doa. Denetan krisian da «modelo» hori. Euskal herrian ere, osoki eraiki baino lehen, krisian sartua da J. Gabilondok dionez. Hortaz batere konturatu gabe, garai berri batean sartuak omen gara «Europako» Euskal Herrian. Mimatu nahi dugun «eredu nazionalak» trabatzen gaitu aldaketa horietaz ohartzeko. Erdigunetik kanpo dauden Euskaldunek, diasporakoek –Joseba Gabilondo Estatu batuetan bizi da, adibidez– eta, hemen berean, gure arteko gutiengoek –harek emazteak eta homosexualak izendatzen ditu– eredu nazionalaren gainetik pasatzen dira.

Konklusioa

Lehen datu bilketa bat baizik ez da gaineko lana. Garbi dago Txuma Lasagabater-rek finkatu zuen programa ez dugula bete. Halere, Euskal literaturaren historiaz eredu «erabilgarri» bat badugu esku artean, Iparraldean eta Hegoaldean erabiltzen eta irakasten dena baita ere kanpora hedatzen dena. Haren alde onak eta haren gabeziak ikusten ditugu. Beraz, bi egun hauetan antolatuak diren ausnarketa kritikoei esker, pentsa daiteke gaur egungo «euskal literaturaren historiak» eskaintzen digun eredua hobetzen ahalko dugula.

Bibliografia

Erreferentzia orakorrak

BACKÈS, J.L., 1996, *La littérature européenne*, Belin .

[19] GABILONDO, Joseba, 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unbertsitatea.

Euskera 2010_2.indb 815 28/06/11 13:26

BARTHES, R., 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.

CHAMOISEAU, P., 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.

CHAMOISEAU, P., CONFIANT, R., 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.

CURTIUS, E.R., 1956, (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Môyen-âge latin*, PUF,

ESCARPIT, R., 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF, 1958. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.

GLISSANT, E., 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation* Gallimard.

JAUSS, H.R., 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard,

LANSON,G., 1894, *Histoire de la littérature française*.

SARTRE, J.P., 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.

VERCIER. B., VIART, D., 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

Euskal literaturaren historia

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca,* Erein.

———, 2008, *Euskal literaturaren historia,* Erein.

ETXANIZ, X., *1997, Euskal haur eta gazte literatura*, Pamiela.

ETXANIZ, X., LOPEZ GASENI, M., 2005, *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*, Utriusque Vasconiae.

GABILONDO, J., 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

GARATE, G., 1983-1985, *Euskal eleberriaren kondaira*, Gotzon Garate, Mensajero.

JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus.

KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Mensajero.

———, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.

———, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

Euskera 2010_2.indb 816 28/06/11 13:26

———, 2003, *XX. Mendeko euskal literatura*, Prades.

LANDA, J., 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK.

LASAGABASTER, Tx., 1983, *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.

LEKUONA, J-M., 1982, *Ahozko literatura,* Erein.

LHANDE, P., 1925, Le Pays basque à vol d'oiseau, Beauchesne.

LOPEZ GASENI, M.,

MITXELENA, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro.

MUJIKA, L.M., 1979, *Historia de la literatura euskerika*, Kriseilu.

OLAZIREGI, M.J., 2002, *Euskal eleberriaren historia*, Labayru.

ORPUSTAN, J-B., 1996, *Précis de littérature basque*, Izpegi.

SALABERRI MUÑOA, P.,2000, *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar.

SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*, Lur.

———, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.

TORREALDAI, J.M., 1977, *Euskal idazleak gaur,* Jakin.

———, 1997, *Euskal kultura gaur,* Jakin.

URKIZU, P., 1975, *Euskal teatroaren historia,* Kriselu.

———, (zuzendari: askoren artean), 2000, *Historia de la literatura vasca*, Uned.

Euskera 2010_2.indb 817 28/06/11 13:26